



## Uribarriko korridia

**A**zelakotxe korridak egin gitxuan lehengo egunian zuen lagunekin! edo antzeko zerbait esaten geben, broman edo juer-gan gustora jardun ezker. **Uribarri** auzoko gaztiak korridak egin zittuain, bai, baiña "benetakuak" orain dala 45-46 urteko San Andres bixamonian.

Uribarriko jaixak, dakizuenez, **San Andresetan** ospaketan dira, zemendixaren 30ian. Sasue batian egun horretan izaten ziran meza nagusixa, gonbidautzaiak, bazkari galanta eta erromerixa ederra. San Andres egunian auzokuak ez ezik, beste leku batzuetako senide, lagun eta neska-mutillak be alkarketan ziran Uribarrin. Baiña hurrengo egunian, abenduaren 1ian, auzotarrak eta inguruetako banaka batzuek bakarrik zelebraitzen euen **bixamon-fiestia**. Izugarritzko girua egoten ei zan, gaztien artian batez be.

Behin akordau xaten zezen-korrida formala egin bihar euela bixamon-egunian. Pentsau eta moldau: urte bittan modutu zittuain zezenketok. Torero-lanak **Erostege Txikiko Jabier Guridik** hartu zittuan bere gain, eta argazki honetan gehixenak agerketan ez badira be, kuadrilla bikaiña eukan laguntzaille: **Soraluzeko Juan Idigoras**, **Azkarraga Erdiko Fidel Inza**, **Azkarraga Haundiko Jabier Jausoro** eta **Txopeko Joxe Luis Bikuña**. Idisko-zezena, berriz, **Txopeko** ganaderixa famaukua zan.

Fotografixa honetan ederki ikusi geinke zelako estilo dotoria eukan gure toriatzailiak, postura zaillian, belauniko eta pasia emuteko gertu. Txopeko plazan faenia ikusten ziharduen publikuaren arteik honeik ezagutu dittugu ezkerretik eskumara aurrengo illaran:

Migel Mari **Inza**, **Azkarraga Erdikua**; Bixente **Inza**, hau be **Azkarraga Erdikua**; Emilio **Urzelai**, **Urzelaikua**; Nazario **Gal-dos**, **Otadui Haundikua**; X. X.; Andres **Beitia**, **Otadui Txikikua**; atzekalde antzian, Jabier **Zabaleta**, Berezaio auzoko **Ertzil Etxe-barrikua**; Jabier **Txintxurreta**, **Latustegi Haundikua**; Antonio **Bikuña**, **Tabernakua**; Angel **Arkauz**, Lezesarri auzoko **Gastia-sorokua**; Antonio **Agirrebaltzategi**, **Baltzategikua**; mutikua, X. X.; Paulo **Madina**, **Latustegi Haundikua**; Pedro **Igartua Azka-rraga Haundikua**; X. X.; Jose Antonio **Mur**, **Banastainguan** bizi zana; asto gaineko pikadoria, Jabier **Jausoro**, **Azkarraga Haun-dikua**; Jaxinto **Igartua**, **Sagastizabalgua**; eta torerua, jakiña, Jabier **Guridi**, **Erostege Txikikua**.

J. E.

Fotografixa Jabier Guridik eskuratu dosku. Argibidiak, berriz, Jabierrek berak eta Gurutz Jausorok. Eskerrik asko bixoi!